

Amets Sierra Godinez

Dmaila • Aipamena

Kaixo! Amets Sierra naiz eta 12 urte ditut, La Salle ikastetxean ikasten dut.

Askok gustatzen zait bidaiatzea, hizkuntzak eta psikologiarekin erlazionatuta dauden artikuluak irakurtzea. Ea nire ipuina gustuko duzuen!



MALETIN OSPETSU BAT

Hendaiako tren geltokitik abiatu ginen abuztu amaierako arratsalde euritsu batean. Aitak lagundu zidan niri; osaba batek nire bidaideari. Hamabost urte besterik ez nuen. Bi urte zaharragoa zen nirekin bidaiatzera zihoan goierritarra. Urduri nengoen ni; bera nola sentitzen ote zen, ez dakit. Hogeita hamar urte lehenago, Hitler eta Franco elkartu omen ziren bertan, Hendaiako. Horren berri geroago izan nuen.

Hendaiako tren geltokia txikia da. Hala gogoratzen dut; izan ere, geroztik ez naiz itzuli. Jendea gainezka zegoen. Kanpoko jendeak, mailetak handik hona mugitzen zituen. Gizon batek agindua ematen zituen apenas ulertzen nuen hizkuntza batean.

Halako batean, "Milano" aipatu zutela uste dut. Handik ordu laurden batera, tren baten barruan geunden. Bagoiko apal batean mailetak ipini eta minutu gutxira, mantso-mantso trenea abiadura hartzen hasi zen. Hogeita lau orduko bidaia genuen aurretik Milanora (Italia) iritsi arte.

Urduri nengoen, gorputz guztia dardarka, ez nire lehenengo bidaia zelako soilik, estazioan zain geundenean zerbait bitxia gertatu zitzaidalako baizik. Besapean pilota batzuk neramatzan jokatzeko eta maleta handi bat beste eskuan. Halako batean, tragedun gizon bat hurbildu zitzaidan. Ilea urdina zuen; baita bibotea ere. Maletin beltza zeraman ezkerreko eskuan. Masailak gorri-gorri jarri zitzaizkidan. "Milanora heltzen zarenean, trenetik jaitsi bezain pronto gizon bat hurbilduko zaizu -esan zidan-; besomotza eta herrena da. Eskura iezaiozu maletina. Ez zara inoiz damutuko". Hitz horiek esan eta, maletina nire eskuetan utzita, joan egin zen.

Sei lagun gindoazen bagoian ni eta nire lagun goierritarra kontutan hartuta. Itxurarengatik atzeritarrak ziruditen beste lauak. Frantsesak ez, bederen. Ez zuten asko hitz egiten eta esaten zutena frantsesa ez zela jokatu nuke. Hainbeste ikasia nuen batxilerrean. Mahatsak biltzera zihoazen portugaldarrak edo izango ziren nongait. Minutuak, orduak pasatu arren, ez nintzen lasaitzen. Are gutxiago maletinaren gainean pentsatzen jartzen nintzen bakoitzean, behin eta berriro burura etortzen zitzaidan auzia, hain justu.

Zer ote zegoen maletinaren barruan, dirua, dokumentu sekretuak...? Badaezpada maletina soinean edukitzea erabaki nuen, nire gorputzari atxikita. Nire lagun goierritarra salbu, jende arrotzez inguratuta nengoen. Tarteka batek edo bestek begiradarik botatzen zioten sabelaren kontra neukan maletinari. Orduan eta estuago heltzen nion nik hartara.

Trenaren trinkili trankala monokorde eta monotonoaren erritmoan, nahigabeko lozorroan sartu nintzen, bagoiko gainontzeko guztiak lo seko zeuden bitartean; zurrungan gehienak.

Halako batean, gure bagoiko atea ireki eta gizon uniformatu bat builaka sartu zen bertan. Aginduak emanez, mehatxuka agian? Nik eta nire lagun goierritarrak ez genuen ezer ulertzen, ezta portugaldarrek ere. Nola edo hala, seiok literak lotarako prestatzen hasi ginen uniformeaz janzten zen ero itxurako funtzionarioak biraoak botatzen zituen bitartean.

Gau hura gau luzea izan zen niretzat. Arrotz harengandik eskuratu nuen maletinak sortu zidan urduritasuna, batetik, deserosotasuna, bestetik, ohe estu hura, trenaren etengabeko trankatan hura, tunelean sartu eta beste lokomotorekin gurutzatzean entzuten den abiadura hotsa... Dena nahasirik. Ez, ez zen giro hamabost urteko mutil urduri batentzat. Izerdi usainak jasan ezina egiten zuen bagoi hartako bizikidetza.

Etiketarik urruntzea ez zen gauza samurra izan. Bidaia hasi bezain pronto konturatu nintzen ustekabeak bata bestearen atzetik izango nituela. Eta oraindik Milanora heldu gabe geunden. Bertan zer aurkituko nuen ez nekien.